



## **Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostenak, VTC izenekoak Euskadin izango duen erregulazioa lehiaren aldekoa izatea gomendatzen du**

---

Euskadiko Autonomia Erkidegoan Gidaria duten ibilgailuen (VTC) errentamenduaren erregularizazioari buruzko txostena eman du lehiaren ikuspegitik, 13/2018 Errege Dekretu Legea indarrean sartu ondoren.

Ondorio gisa esaten du VTC jarduera oso sektore erregulatuan gauzatzen dela, oso arautegi interbentzionistarekin, eta oztopo ugari erakusten dituela, bertara sartzeko eta lanbidea aurrera eraman ahal izateko.

---

Bilbon, 2018ko abenduaren 21ean. **Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA-AVC) txostenak, Gidaria duten ibilgailuen (VTC) errentamendu jarduera lehiaren aldekoa izatea gomendatzen du. Horrela, merkatu lehiakorragoak zenbait abantaila izango lituzke, operadoreentzako kostuen eta kontsumitzaileen itzaroteko denboraren murrizketa, adibidez, horrek azken horientzat eragingo lukeen ongizatearen hobekuntzarekin.**


2018ko abenduaren 13an, Lehiaren Euskal Agintaritzak "13/2018 Errege Dekretu Legea indarrean sartu ondoren, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Gidaria duten ibilgailuen (VTC) errentamenduaren erregularizazioari buruzko Txostena lehiaren ikuspegitik" izenekoak onetsi du 2018ko abenduaren 13an. Txostenaren ondorioetan adierazten denez, VTC jarduera oso sektore erregulatuan gauzatzen da, oso arautegi interbentzionistarekin, eta oztopo ugari erakusten ditu, bertara sartzeko eta lanbidea aurrera eramateko.

Azkenengo erreformarekin (13/2018 Errege Dekretu Legea) sartutako aldaketek handitu egin dituzte oztopoak, VTC zerbitzua hiri arteko ibilbideetara mugatzen baita, lau urteko epealdi iragankorraren ondoren; zerbitzuaren jatorria baimena helbideratuta dagoen Autonomia Erkidegoan egin behar da; eta aurre-kontratazio erregimenari eusten zaio.

Estatu mailan aplikatutako arau berriak taxien eta VTCen arteko lehia gehiago murriztea dakar, berez ere lehiari dagokionez oso irekita ez dagoen sektorean. Horrek eragina izan dezake prezioetan eta zerbitzuen kalitatean eta, gainera, berrikuntzarako pizgarriak murriztu ditzake.

Errege Dekretu Legeak gaikuntza berezia ematen die Estatuaren ordezkapenez nazio mailako VTC baimenak emateko eskudunak diren Autonomia Erkidegoei, Euskadiri, besteak beste, VTCen ustiapen baldintzak aldatu ahal ditzaten.

Hori dela eta, LEA-AVCk zenbait gomendio ematen ditu, autonomia erkidegoko egungo



araudia egokitu dadin, gaituta geratu diren alderdiak baztertuz, eta arautegi berri hori, Euskadin, behar, proportzionaltasun eta ez bazterketa printzipioak errespetatuko dituen erregulazio oneko irizpideetan oinarritu dadin.

### **Lehiaren Euskal Agintaritza**

Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioako erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jardura ekonomikoari dagokienez.

[13/2018 Errege lege-dekretua indarrean sartu dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoan Gidaridun Ibilgailuen \(GTI\) Zerbitzuak Alokatzeko Araubideari buruzko Txostena, lehiaren ikuspegia jorratzen duena](#)